

E U S K A L
KAZETARIEN ELKARTEA



Haurduntza subrogatua; informazio-beharra errespetuzko eztabaidarako



Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak Bilboko Udalaren laguntzarekin antolatutako jardunaldia martxoaren 5ean izan zen, Bilboko Ercilla Hotelean.

Gaian adituak elkartu ziren hausnarketa egiten saiatzeko, aurreiritziak eta estereotipoak bazter utzita, informazioen zehaztasuna eta haurren babesa bermatzeko.

Bilbo, 2019ko martxoaren 6a.- Jardunaldiaren irekiera-hitzaldiak izenburu hau izan zuen: “Más allá del titular: Mitos y realidad de la gestación subrogada” (Titularretik harago: haurduntza subrogatuaren mitoak eta errealitatea); eta hizlaria eta bideratzailea, hurrenez hurren, Jesús Coterón, Kazetarien Euskal Elkargoko dekanoa eta Euskal Kazetarien Elkarteko presidentea, eta Amaia Goikoetxea, kazetaria eta Elkargoko dekanordea, izan ziren.

Bertaratutako berrogeita hamar bat lagunen aurrean, laguntza bidezko giza ugalketari lotutako arazo juridikoetan espezializatutako abokatu Ana Miramontes Roel andreak gogorarazi zuen haurduntza subrogatua “Espainian ez dela ilegala, eta bertan ez dela, beraz, zigortzen edo zehatzen”. Zentzu horretan, Rocío Núñez Calonge andreak honako hau azpimarratu zuen: “haurduntza subrogatua ez da laguntza bidezko beste ugalketa-teknika bat bakarrik”. Izan ere, Ugalkortasuneko Espainiako Sozietatearen Etika eta Praktika Kliniko Egokiko Taldeko lanaren koordinatzailearen iritziz, “medikuaren aginduz erabil daiteke bakarrik”.

Bere aldetik, Xabier Madariaga kazetariak publikoari bere esperientzia azaldu zion, teknika horren bidez aita izan ondoren. Madariagak ohartarazi zuen sabel alokatuei buruz hitz egitea “errespetu-falta bat” dela “familia bat osatzeko ametsa” betetzeko asmotan teknika horretara jotzen duten pertsonetikiko. Kontrapuntu gisa, EHUko Zuzenbide Fakultateko Guillermo Lazcozek zalantzan jarri zuen “beste batentzat haurra sabelean hazten duen emakume bati konpentsazioa ematea eta eurentzako beren sabeletan gauza bera egiten dutenei ez”. Horrez gain, Beatriz San Román Sobrino kazetari eta psikologo sozialak sor daitezkeen abusu-egoerei buruzko hausnarketa egin zuen, eta egoera arautzearen alde egin zuen; betiere, “eztabaidaren inguruko sumina eta polarizazioa gainditu ondoren”.

Jardunaldiak ia 2 ordu eta erdiko iraupena izan zuen, urte osoan zehar Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak Bilboko Udalaren laguntzarekin, eta kasu honetan, Espainiako Haurduntza Subrogaturako Elkartearen laguntzarekin, antolatzen dituzten jardunaldien esparruan, deialdi honetara bertaratutako kazetarien eta publikoaren galderek piztutako eztabaidari esker.

La gestación subrogada; necesidad de información para un debate respetuoso



La jornada, organizada por el Colegio Vasco de Periodistas y la Asociación Vasca de Periodistas, con la colaboración del Ayuntamiento de Bilbao, se llevó a cabo el 5 de marzo en el Hotel Ercilla de Bilbao.

Expertos y expertas en el tema se dieron cita para tratar de reflexionar, huyendo de prejuicios y estereotipos, salvaguardar el rigor en las informaciones y la protección de los niños/as.

Bilbao, 6 de marzo de 2019.- La apertura de la jornada, que llevó por título 'Más allá del titular: Mitos y realidad de la gestación subrogada', corrió a cargo de *Jesús Coterón*, decano del Colegio Vasco de Periodistas y presidente de la Asociación Vasca de Periodistas, y *Amaia Goikoetxea*, periodista y vicedecana del Colegio, quien ejerció de moderadora.

En su intervención ante el medio centenar de asistentes, la abogada especializada en la problemática jurídica derivada de la reproducción humana asistida, *Ana Miramontes Roel*, recordó que la gestación subrogada “no es ilegal en España, ni se penaliza ni se sanciona”. En ese sentido, *Rocío Núñez Calonge* subrayó que “la gestación subrogada no es una técnica de reproducción asistida más” ya que, según detalló la coordinadora del trabajo del Grupo de Ética y Buena Práctica Clínica de la Sociedad Española de Fertilidad, “sólo se puede recurrir a ella mediante indicación médica”

Por su parte, el periodista *Xabier Madariaga* relató ante el público asistente su experiencia personal como padre a través de esta técnica. Madariaga alertó que desde el momento en que se habla de vientres de alquiler estamos ante “una falta de respeto” hacia quienes recurren a esta técnica para lograr el “sueño de formar una familia” Como contrapunto, el profesor de la Facultad de Derecho de la UPV *Guillermo Lazcoz* se cuestionó por las razones que llevan a “compensar a una mujer que gesta para otra y no a las mujeres que gestan para sí mismas” Mientras que la periodista y psicóloga social *Beatriz San Román Sobrino* reflexionó sobre las situaciones de abuso que pueden derivarse y apostó por la regulación pero tras “superar este momento de crispación y polarización del debate”

La jornada se prolongó durante cerca de 2 horas y media gracias al debate propiciado por las preguntas de los/as periodistas asistentes y el público que acudió a esta convocatoria en el marco de las jornadas que, a lo largo de todo el año, organiza el Colegio Vasco de Periodistas - Kazetarien Euskal Elkargoa y Asociación Vasca de Periodistas - Euskal Kazetarien Elkarte; en colaboración con el Ayuntamiento de Bilbao y, en este caso concreto, la Asociación para la Gestación Subrogada en España.